

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 595/2018 Erabakia, azaroaren 6koa. Onestea Aldundiaren ordezkariak izendatzea estatuarenak diren eta Arabako Lurralde Historikoan dauden artxiboen kudeaketa eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako hitzarmenaren jarraipen batzorderako

Estatuko administrazioa-Euskal Autonomia Erkidegoa Transferentzien Bitariko Batzordearen 2011ko ekainaren 22ko Erabakiaren bidez, zeina ekainaren 28ko 142/2011 Dekretuak eta ekainaren 24ko 897/2011 Errege Dekretuak onetsi baitzuten, estatuarenak diren eta Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zaizkion eginkizunak eta zerbitzuak gehitu ziren.

Eskualdatze horretaz baliaz, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmena sinatu zen 2012ko abuztuaren 31n, zeina estatuarenak diren artxiboak kudeatzeari buruzkoa baita, eta han jarraipen batzorde bat eratzea jasotzen da.

Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 25/2018 Foru Dekretuaren arabera, zeina 2018ko ekainaren 15eko ALHAOn argitaratu baitzen, onespena ematen zaio Eusko Jauriaritza-Arabako Lurralde Historikoa Transferentzien Bitariko Batzordeak estatuarenak diren eta Arabako Lurralde Historikoan dauden artxiboen kudeaketa eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruz harturiko 2018ko ekainaren 4ko erabakiari, eta hura oinarri AFA Arabako Artxibo Historikoaren kudeaketan subrogatzen da; hortaz, Eusko Jauriaritzak estatuarekin daukan hitzarmenaren jarraipen batzordean daukan kokalekuan.

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzea organismo eta erakunde publiko zein pribatuetan, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoarenak, 8. artikuluko 9. eta 10. paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Beraz, ezinbestekoa da Estatuarenak diren eta Arabako Lurralde Historikoan dauden artxiboen kudeaketa eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako hitzarmenaren jarraipen batzordean Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkari izendatzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: pertsona hauek izendatzea estatuarenak diren eta Arabako Lurralde Historikoan dauden artxiboen kudeaketa eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako hitzarmenaren jarraipen batzordean:

Lehendakarikidea: Igone Martínez de Luna Unanue, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua.

Kidea: Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbigano, Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela era.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabineteko zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN